

3. Irakurri eta marraztu zure koadernoan konpasarekin 2 cm-ko erradioa duen zirkunferentzia bat. Ondoren, markatu puntu gorri batez zentroa.

EGIN HONELA

Nola egin 2 cm-ko erradioko zirkunferentzia bat, konpasa erabiliz


1. Ireki konpasa erradioaren luzera adina. Kasu honetan, 2 cm.



2. Jarri konpasaren punta paperean. Puntu hori zentroa izango da.



3. Biratu konpasa, punta mugitu gabe, bira oso bat egin arte.



4. Egin 4 cm-ko erradioa duen zirkunferentzia bat konpasarekin zure koadernoan eta marraztu.


 Erradio bat.

• Erradio gehiago egin al ditzakezu? ____
Eta diametro gehiago? ____

 Diametro bat.

• Zenbat aldiz handiagoa da diametroa erradioa baino? __ aldiz.

5. Behatu irudiari, pentsatu eta erantzun.



Irunek 10 cm-ko aldea duen kortexozko lauki bat du.
Moztu egin nahi du, ahalik eta baso-euskarri zirkular handiena egiteko. Zer luzera izango du baso-euskarriaren diametroak? ____ cm. Eta erradioak? ____ cm.

6. Bilatu Interneten zer den logotipo bat. Ondoren, asmatu eta marraztu logotipoak.

- 2 zirkunferentzia eta 3 zirkulu dituen logotipo bat.
- Triangelu bat, 2 lau-aldeko eta 2 zirkunferentzia dituen logotipo bat.